

REACU

Red Española de Agencias
de Calidad Universitaria

Egiaztapenerako ebaluazioa

Doktorego-irakaskuntza ofizialak egiaztatzeke ebaluazio-
protokoloa

SARRERA

Unibertsitateko ikasketa ofizialak antolatzen dituen 1393/2007 Errege Dekretuan (861/2010 Errege Dekretu bidez aldatu zen), unibertsitate-irakaskuntza ofizialek egin beharreko egiaztapen-, jarraipen- eta akreditazio-prozesuak arautzen dituen esparru orokorra ezartzen da. Europako Batzordeak finkatutako kalitate-irizpide eta -estandarrek betetzen dituztela egiaztatzeke, agentziek kanpo-ebaluazio bat gainditu beharko dute eta, gaindituz gero, Goi Mailako Hezkuntzaren Kalitatea Segurtatzeko Europako Elkarteko (European Association for Quality Assurance in Higher Education) –ENQA– eskubide osoko kide izan daitezke; hori horrela izanik, kalitate-irizpide eta -estandar horiek betetzen dituzten eta Kalitatea Ebaluatzeko Agentzien Europako Erregistroan –EQAR– erregistratuta dauden agentziek ikasketa-planak ebaluatuko dituzte, nazioarteko kalitate-estandarrei eta Errege Dekretu honetan xedatutakoari jarraiki egiaztapena eta akreditazioa egiteko beharrezkoak diren eta elkarrekin adosten dituzten ebaluazio-protokoloen arabera. Une honetan, ebaluazio-prozesu horietan parte har dezakete honako agentzia hauek: ACSUCyL, ACSUG, AGAE, ANECA eta AQU Catalunya.

Doktorego-irakaskuntza ofizialak arautzen dituen 99/2011 Errege Dekretua da doktorego-ikasketak antolatzeko erreferentzia-esparrua. Arau horretan, doktoreen prestakuntzari buruz jardun duten Europako eta nazioarteko foroetan sortutako gomendioak biltzen dira. Gomendio horiek guztiak honako gai hauei buruzkoak dira: doktoregoaren egiturari eta antolaketari buruzkoak, doktoregaiek eskuratu beharreko gaitasunei buruzkoak, ikerkuntza-karreraren hasierako etapan sartzeko baldintzei eta garapenari buruzkoak, ikerkuntza-prestakuntza gainbegiratuta eta tutoretzapean egitearen garrantziari buruzkoak, prestakuntza hori komunikazioa eta sormena sustatuko duen ikerkuntza-giroan txertatzeari buruzkoak, eta nazioartekotzeari eta mugikortasunari buruzkoak.

Egiaztapenerako ebaluazioan, programan parte hartzen duten ikerketa-taldeen kaudimena abalatzeko duten alderdiak, batik bat, hartuko dira aintzat, baita doktoregaieen prestakuntza-prozesua behar bezala garatzen ote den ere. Horregatik, honako hauek balioetsiko dira: programan sartutako langileen ikerkuntza-kualifikazioa, zein proiektu lehiakorretan parte hartzen duen, ekarpen zientifiko garrantzitsuenak,

doktorego-tesien zuzendaritzan izan duen esperientzia eta tesi horien kalitatea, doktoregaiantzat dagoen finantzaketa eta programaren nazioartekotze-maila. Ebaluazio horrekin bi helburu bete nahi dira: alde batetik, doktorego-programak, aurreikusitako epean, testuinguru zientifikoaren araberako inpaktua eta kalitatea izango duten doktore-tesien zentzuzko kopurua gauzatzeko adina giza baliabide eta baliabide material izan badituela abalatzeko; eta, bestetik, ateratzen diren doktoreen enplegarritasuna prestakuntzaren araberakoa izateko.

1393/2007 Errege Dekretuaren 24. artikuluan xedatutakoa betetze aldera, Unibertsitate Kalitatearen Agentzien Espainiako Sareak (REACU) –lehen aipatu ditugun agentziak hor bilduta daude– protokolo hau prestatu du, doktorego-programen proposamen orok abiapuntuan bete beharreko gutxieneko baldintzak betetzen direla bermatuko duten alderdi garrantzitsuenak aztertzeari eta balioesteari erreparatzeko asmoz.

Ebaluazio-protokolo honen egitura bat dator egiaztapen-prozesua gainditu behar duen doktorego-programen proposamen bakoitzari buruzko informazioa bidaltzeko unibertsitateek bete behar duten moduarekin; 99/2011 Errege Dekretuaren II. eranskinean zehaztuta dago modu hori. Hori horrela dela, hainbat alderdi orokor biltzeaz gain, ebaluazio-protokoloa zortzi irizpidetan oinarritzen da eta balioespen-prozesua bideratuko duen jarraibide multzo bat txertatu da irizpide bakoitzerako. Horrek ez du esan nahi agentzia bakoitzak ezin duenik bere laguntza-gidaliburua prestatu, dokumentu honetan deskribatzen diren irizpide eta jarraibideak ebaluazio-prozesuan nola aplikatuko dituen zehatz-mehatz azaltzeko.

Egiaztapenerako ebaluazio-prozesuei ahalik eta koherentzia eta sendotasun handiena ematearren, agentziek protokolo hau etengabe aztertu eta berrikusteko konpromisoa hartu dute, titulu-proposamenak egiteko garaian lagunduko dien informazioa une oro eskura izan dezaten unibertsitateek.

IRIZPIDEAK ETA JARRAIBIDEAK

Doktorego-programak oinarrizko giza eskubideen eta berdintasun-eskubideen errespetua eta sustapena bermatu behar du, eta balio demokratikoak eta bake-kultura sustatu behar ditu. Doktorego-programaren diseinuak kontuan izan behar du edozein lanbide-jarduera honako hauek kontuan hartuz egiten dela:

- Oinarrizko eskubideak eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna errespetatuz, eta bidezko diren ikasketa-planetan eskubide horiei lotutako irakaskuntzak barne hartu behar dira.
- Giza eskubideak eta irisgarritasun unibertsalaren eta denontzako diseinuaren printzipioak errespetatuz eta sustatuz, eta bidezko diren ikasketa-planetan eskubide eta printzipio horiei lotutako irakaskuntzak barne hartu behar dira.
- Bake-kulturaren eta balio demokratikoen berezko balioak kontuan izanik, eta bidezko diren ikasketa-planetan balio horiei lotutako irakaskuntzak barne hartu behar dira.

I. Irizpidea: Doktorego-programaren deskripzioa

Doktorego-programak bere maila eta ondorio akademikoekin bat datorren deskribapena barne hartu behar du, bere ezaugarriei buruz inolako nahasterik sor ez dezan.

- Proposatutako diren ikerketa-ildoekin koherentea izan behar du izenak, eta ez du nahasterik sortu behar.
- Proposatzen duen edo duten unibertsitateen testuinguruak, tradizioak, tituluaren eskaintza globalak eta ahalmenak justifikatu behar du.
- Koherentea izan behar du eta unibertsitatearen edo beste organismo eta erakunde batzuen I+G+B estrategian barne hartuta egon behar du.
- Beharrezko nazioartekotze-maila erakutsi behar du, bere gaiaren eta testuinguruaren arabera.

II. Irizpidea: Gaitasunak

Doktoregaiek eskuratu beharreko gaitasunek bat etorri behar dute doktore-titulua emateko eska daitezkeen gaitasunekin eta Goi-mailako Hezkuntzarako Europar Esparruan finkatutako kalifikazioekin.

- Proposatutako gaitasunek argi eta zehatz idatzita egon behar dute, eta Goi-mailako Hezkuntzarako Europar Esparruan duten mailarekin lerrokatuta egon behar dute.
- Proposatutako gaitasunek ebaluagarriak izan behar dute, eta doktoregai guztiak eskuratu ahal izan ditzaten bermatu behar da.

III. Irizpidea: Doktoregaien sarbidea eta onarpena

Doktorego-programak, onartzeko irizpideak arautzen dituen eta ikasleei horien berri ematen dien sartzeko eta onartzeko sistema bat eduki behar du.

- Onartzeko irizpideek publikoak izan behar dute, argi idatzita egon behar dute, ez dute nahasmenik sortu behar eta doktorego-programaren eremu zientifikoarekin koherenteak izan behar dute.
- Prestakuntza-osagarri espezifikoak eskatzen baldin badira, horiek ikaslearen sarbide-profilera egokituta egon behar dute eta doktorego-programaren eremu zientifikoarekin koherenteak izan behar dute.
- Doktorego-programari buruzko informazioak doktoregaien eskura egon behar du matrikulatu baino lehen.

IV. Irizpidea: Prestakuntza-jarduerak

Doktorego-programan barne hartutako prestakuntza-jarduerak modu koordinatuan diseinatutako prestakuntza-proposamena izango dira, betiere aldi jakin batean doktoregaien dedikazioa kontuan izanik.

Doktorego-irakaskuntza ofizialak egiaztatzeke ebaluazio-protokoloa

- Prestakuntza-jardueren plangintzak eta antolaketak, bereziki diziplina- eta metodologia-jakintzei (mintegiak, ikastaroak, tailerrak eta abar), zeharkako gaitasunei, prestakuntza-esperientziei (doktoregaien jardunaldiak, kongresu nazionalak eta nazioartekoak eta abar) eta abarri buruzkoek, doktoregaiek eskuratu beharreko gaitasunekin koherenteak izan behar dute.
- Doktorego-programak doktoregaien mugikortasunaren antolaketa egokia barne hartu behar du, horiek eskuratuko dituzten gaitasunekin koherentea dena.
- Doktorego-programak denbora osoko nahiz denbora partzialeko ikaslearentzako plangintza bat barne hartu behar du, aurreikusita dauden gaitasunen eskuraketa ziurtatzen duena.

V. Irizpidea: Programaren antolaketa

Doktoregaiaren jarraipena eta doktorego-tesiaren ikuskapena egiteko prozedurek ziurtatu behar dute ikasleak doktorego-programan definitutako gaitasunak eskuratzen dituela.

- Doktorego-programak ondoren adierazten diren prozedurak eduki behar ditu eta jendaurrean jarri behar ditu. Prozedura horiek egokiak izan behar dute eta honako hau barne hartu behar dute:
 - Batzorde akademikoak doktoregaiaren tesi-tutorea eta -zuzendaria izendatzeko erabilitako prozedura.
 - Doktoregaiaren jarduera-dokumentua kontrolatzeko eta bere datuak ziurtatzeko prozedura.
 - Doktoregai bakoitzaren ikerketa-planaren eta jarduera-dokumentuaren urteko balioespena egiteko prozedura.
 - Doktorego-tesien zuzendaritza eta ikuskapen anitza sustatzeko jarduerak definitu eta balioesteko prozedura.

VI. Irizpidea: Giza baliabideak

Doktoreen prestakuntzari dagokionez programaren bideragarritasuna a priori ziurtatzen duten ikertzaileen multzo batek abalatu behar du doktorego-programa. Inplikaturako

langile akademikoek nahikoak izan behar dute eta doktorego-programa burutzeko prestakuntza eta esperientzia egokia izan beharko dute.

- Ikerketa-talde bakoitzak programaren ikerketa-ildoekin erlazionatutako gaietan proiektu lehiakorra eduki behar du.
- Programan parte hartzen duten langile ikertzaileen ekarpen zientifiko garrantzitsuenek abalatu behar dute programa.
- Bere ikertzaileek doktorego-tesien zuzendaritzan duten esperientziak eta tesi horien kalitateak abalatu behar dute programa.
- Unibertsitatean tesiaren tutorizazio- eta zuzendaritza-lana aintzatesteko mekanismo argiak egon behar dute.

VII. Irizpidea: Doktoregaiantzat eskura dauden baliabide materialak eta material lagungarriak

Doktorego-programan aurreikusitako prestakuntza-jarduerak garatzeko eta doktoregaiaren prestakuntza integralerako beharrezkoak diren baliabide materialek eta zerbitzuek aurreikusitako gaitasunak eskuratzea ziurtatu behar dute.

- Baliabide materialek eta eskura dauden beste bitarteko batzuek doktorego bakoitzak egin beharreko ikerketaren garapena bermatu behar dute.
- Doktoregaiari kongresuetara bertaratzeko eta atzerrian egonaldiak egiteko eta era berean doktorego-programaren esparruan estatuko eta nazioarteko mintegiak, jardunaldiak eta beste ekintza batzuk antolatzea ahalbidetzen duen finantzaketa erraztuko duten beharrezko zerbitzuak eta baliabideak bermatu behar dira.
- Doktorego-programak lanbide-orientaziorako zerbitzuak eduki behar ditu, programatik ateratzen direnen laneratze egokia erraztuko dutenak.

VIII. Irizpidea: Doktorego-programaren berrikuspena, hobekuntza eta emaitzak

Doktorego-programak bere garapena eta emaitzak aztertzeko aukera ematen duten mekanismoak eduki behar ditu, bere berrikuspena eta etengabeko hobekuntza ziurtatuz.

- Programaren garapena ikuskatzeko, emaitzak aztertzeko eta hori hobetzeko bidezko diren jardunak erabakitzeko prozedurak eta mekanismoak bideratzen dituen batzorde akademiko bat eduki behar du. Doktoregaien eta atera diren doktoreen iritziak hobekuntza-ekintzak definitu eta ezartzeko garaian kontuan izan beharreko funtsezko alderdietako bat izan behar du.
- Mugikortasun-programaren emaitzak aztertuko dituen prozedura bat eduki behar du.
- Programari, bere garapenari eta bere emaitzei buruzko informazioa argitaratu behar du erregularitasunez.
- Ateratako doktoreen jarraipena egiteko prozedura bat eduki behar du.
- Unibertsitate batek baino gehiagok parte hartzen duten programen kasuan, parte hartzen duten unibertsitateen arteko koordinazioa ziurtatzen duten mekanismoak eta prozedurak eduki behar ditu.